

ALKATEAREN ERABAKIA

GAIA: Kaleko katuak

ESPEDIENTEA: 2026DZIN0001

INTERESDUNA: KUXKUXERO Katuen babeserako elkartea (IFK: G75416248)

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 1000 euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du KUXKUXERO Katuen babeserako elkartearen alde, 2026. urtean egingo dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Ingurumen Garapenerako teknikariak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak kontuan hartuta, Idazkari-kontuhartzaileak egindako aldeko txostena ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6.artikuluak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENEGOA.- Udalaren eta KUXKUXERO Katuen babeserako elkartea-ren (IFK: G75416248) artean egin beharreko hitzarmena ONARTZEA.

BIGARRENA.- KUXKUXERO Katuen babeserako elkarteari 1000 euroko dirulaguntza ematea ondorengo egitasmoak antolatzeko:

- a) Elkarreak 2026 urtean egingo dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzeko.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren 5.4. klausulan jasotakoaren arabera, dirulaguntzaren %60 ordaintzea hitzarmena sinatu eta arloko teknikariak ordainketa proposamena egin ondoren.

LAUGARRENA.- 1000 euroko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 0100.481.311.00.01 partidari egozte.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026DZIN0001-Alkate erabakia/Resolución (KUXKUXERO Katuen babeserako elkarte)

Digitalki sinatua:



EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA

Alkatea

Data: 2026/06/24 09:16:58